# MUSIKASTE



XVII. Musika astea Errenterian
Maiatzak 15tik - 20era, 1989an

XVII Semana Musical en Rentería
Del 15 al 20 de mayo de 1989



# XVII MUSIKA ASTEA ERRENTERIAN

**Maiatzak 15etik - 20ra, 1989an**

**Antolatzailea:** Andra Mari Korala.
**Babeslea:** Errenteriako Udaletxea.

**Honoko hauen diru laguntzaz:**

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila.
Gipuzkoako Foru Aldundia.
Gipuzkoako Kutxa.
Aurrezki Kutxa Munizipala.
Espainiako Irrati Nazionalaren Irrati 2.
Casa Erviti.
Gipuzkoako Banketxea.
Eroski, E. K.
Bankoa.
Yosu, Musika Tresnak

# XVII SEMANA MUSICAL EN RENTERIA

**Del 15 al 20 de mayo de 1989**

**Organiza:** Coral Andra Mari.
**Colabora:** Ayuntamiento de Rentería.

**Patrocinan:**

Gobierno Vasco.
Diputación Foral de Guipúzcoa.
Caja de Guipúzcoa.
Caja de Ahorros Municipal.
Radio 2 de Radio Nacional de España.
Casa Erviti.
Banco Guipuzcoano, S. A.
Eroski, S. C.
Bankoa
Yosu, Instrumentos Musicales.

Joakin Ojinagaren (Bilbo 1719-1789) heriotzaren II. Mendeurrena ospatzen denean, esan beharra dago bere izena duela gutxi arte itzalean gordeta egon dela. Bere obra musikalaren zati txiki bat besterik ez zen ezagutzen eta bere jaioterriaz eta bizimoduaz ez da ezer jakin orain arte. Gure hutsegite ote? agian bai. Azkenean, datu ezezagun horiek argitu dira eta MUSIKASTE 89k atsegin handiz aurkeztu nahi ditu eta aurkitu berriak diren partiturak ezagutzera eman.

Oroitzapenen arloan, MUSIKASTE 89k Ramon Usandizaga Soraluze (Donostia 1889-1964) goratu nahi du bere Jaiotzaren I. Mendeurrenean, bera izan delako gerraondoan Donostiako musikaren berpizkundearen ardatza Kontserbatorioan egin zuen pedagogo eta zuzendari lanagatik eta Kontserbatorioko Orkestra Sinfonikoaren zuzendari eta sortzaile izateagatik. Era berean, musika erlijioso ugari, obra koralak, sinfonikoak, lied, zartzuelak, ea... idatzi ditu. Honekin batera, MUSIKASTE 89k Eduardo Gorosarri Maiztegi (Eskoriatza 1889-1947), bere Jaiotzaren I. Mendeurrenean goratu nahi du. Gizon hau Begoñako Basilikako organista izan zen, eta Euskal Herriko Txistularien Elkarteko lehen lehendakaria. Obra erlijioso garrantzitsuak idatzi zituen eta era berean euskal koruentzat eta txistu bandentzat partiturak egin. MUSIKASTE 89k, era berean, gaur egungo musikagile ezagunen baieztapenari eragiten dio, beren obrak gutxi ezagunak programatuz, eta musikaren arloan indarrez sartzen ari diren musikagile gazteen izen berriak ziurtatzen ditu.



*Ramón Usandizaga Soraluce (Donostia 1889-1964)*



*Eduardo Gorosarri Maiztegi (Eskoriatza 1889-1947)*

La figura de Joaquín Ojinaga (Bilbao 1719-1789), de quien conmemoramos el II Centenario de su muerte, ha permanecido hasta tiempos muy recientes en una gran penumbra. Solamente se conocía una mínima parte de su obra musical y se ignoraba el lugar de su nacimiento y la trayectoria de su vida. ¿Incuria nuestra? Es posible. Al fin se ha despejado la incógnita y MUSIKASTE 89 presenta con gozo una importante y clarificadora semblanza suya y el reestreno de sus nuevas partituras descubiertas.

En línea de conmemoraciones MUSIKASTE 89 quiere glorificar en el I Centenario de su nacimiento a Ramón Usandizaga Soraluce (Donostia 1889-1964), clave de la restauración musical en la posguerra donostiarra a través de su labor de pedagogo y director en el Conservatorio de San Sebastián, además de su ímproba tarea de fundador y director de la Orquesta Sinfónica del Conservatorio. Autor además de un importante repertorio de música religiosa, obras corales, sinfónicas, lied, zarzuela, etc... A su lado igualmente MUSIKASTE 89 glorifica en el I Centenario de su nacimiento a Eduardo Gorosarri Maiztegi (Eskoriaza 1889-1947), organista en la Basílica de Begoña, primer Presidente de la Asociación de Txistularis del País Vasco y autor de importantes obras religiosas, corales vascas y para banda de txistu. MUSIKASTE 89 promueve además la consagración de compositores contemporáneos conocidos, mediante la programación de obras suyas menos conocidas y la certificación de nuevos nombres de jóvenes compositores, que irrumpen con fuerza en el mundo de la música.

## EGITARAU OROKORRA | PROGRAMA GENERAL

| | |
|---|---|
| **Astelehena 15** | **Lunes 15** |
| Hasierako ospakizuna. | Acto de apertura. |
| **Asteartea 16** | **Martes 16** |
| Kamarako musika | Música de cámara |
| **Asteazkena 17** | **Miércoles 17** |
| Sinfonismoa Donostiako Kontserbatorioan | Sinfonismo en el Conservatorio de San Sebastián |
| **Osteguna 18** | **Jueves 18** |
| Abanguardiako euskal musika gizonak | Músicos vascos de vanguardia |
| **Ostirala 19** | **Viernes 19** |
| Kontzertu sinfonikoa | Concierto sinfónico |
| **Larunbata 20** | **Sábado 20** |
| Koral eguna | Día coral |



Maiatzak 15
astelehena
arratsaldeko 8etan
**Udaleko Areto Nagusian**

Lunes
15 de Mayo
20 horas
**Sala Capitular del Ayuntamiento**

## HASERAKO OSPAKIZUNA
## ACTO DE APERTURA

"Joaquín Ojinaga y la música organística española de su tiempo",
José López Caloren eskutik hitzaldia.

"Joaquín Ojinaga y la música organística española de su tiempo",
ponencia a cargo de José López Calo.

# JOAKIN OJINAGA

Bilbon jaio zen 1719an. Musika eta organua bere jaioterrian ikasi zituen eta, oraindik gazte zelarik, Madrilera joan zen organuko ikasketak hobetzera. 1750ean, errege kaperako bigarren organista izanik, Toledo-ko Katedraleko organista lehena izendatu zuten. 1754ean, bere plazari uko egin zion, horrekin batera zuen ogi eskubidea galduz, horretarako apaiz izan behar bait zuen eta garai hartan ezkontzeko asmoak zituen.

Geroxeago errege kaperako organista lehena izendatu zuten, baina halere beranduago Toledora itzuli zen organista lehena bezela, eta kargu horretan zegoen hil zenean 1789an. Orain lehen aldiz denak bilduak eta edizio kritikoan argitaratzen dira gaur egun gordetzen diren berak konposatutako 7 obra organuarentzat eta klabearentzat hiru. Konposizio hauetariko bi orain argitaratzen dira lehen aldiz; besteak aurretik izan ziren argitaratuak.

Joaquín Ojinaga nació en Bilbao en 1719. Aprendió la música y el órgano en su villa natal, pero siendo aún joven se trasladó a Madrid para perfeccionar sus estudios de órgano. En 1750, siendo segundo organista de la capilla real, fue elegido organista primero de la catedral de Toledo. En 1754 renunció a la plaza, que llevaba aneja la dignidad de racionero, para lo que tenía que ordenarse sacerdote, cuando él ya por entonces pensaba casarse.

Poco después fue nombrado primer organista de la capilla real, pero más tarde volvió a Toledo como primer organista, y en este cargo estaba cuando murió, al parecer en Toledo, en 1789. Se conservan de él siete composiciones para órgano y tres para clave, que ahora se editan, por primera vez, reunidas y en edición crítica. Dos de esas composiciones se publican ahora por primera vez; las demás habían sido editadas ya antes.

# JOSE LOPEZ CALO

1922ko otsailaren 4ean jaio zen Nebra-n (Puerto del Son-en, La Coruña-n).

Filosofiako eta Teologiako Lizentziaturak atera zituen Comillas eta Granada-ko Unibertsitateetan. Madrileko Musika Sakratuko Goi Mailako Eskolak Kantu Gregorianoko Maisu izendatu zuen eta Erromako Musika Sakratuko "Pontificio Instituto"an Musikologian Dotoretza egin.

1953tik aurrera Espainiako artxibo musikalen katalogazio eta ikerketa lanetan aritu da. 1965etik 1970era lehen aipaturiko "Pontificio Instituto"ko Misikologiako Katedraduna izan da eta 1967tik 1970era bertako Erretoreorde.

1973tik aurrera Santiago de Compostela-ko Unibertsitateko Musikaren Historiako irakaslea da. 1974ean, RISMeko zuzendaritzakoek, 1585 eta 1825 bitartean Espainian eskuz idatzi den musikaren katalogazioa agindu zioten dagoeneko 200.000 konposizio baino gehiago katalogatu dituelarik. Munduko Musikologiako Elkarte askoren eta Espainiako zenbait Akademiren kidea da.

1985ean, bere liburutegia eta artxiboa Santiago-ko Unibertsitateari eman zizkion. Liburu ugari eta 200 txosten zientifiko baino gehiago argitaratu ditu. 1989an, Espainiako Gobernuak Arte Ederretako Urrezko Domina ezarri zion.

Nació en Nebra (Puerto del Son, La Coruña) el 4 de febrero de 1922.

Licenciado en Filosofía y Teología por las Universidades de Comillas y Granada. Maestro de Canto gregoriano por la Escuela Superior de Música Sagrada de Madrid y doctor en Musicología por el Pontificio Instituto de Música Sagrada de Roma.

Desde 1953 se dedica al estudio y catalogación de los archivos musicales de España. De 1965 a 1970 fue Catedrático de Musicología en el Pontifio Instituto de Música Sagrada de Roma y de 1967 a 1970 Vicerrector del mismo.

Desde 1973 es profesor de Historia de la Música en la Universidad de Santiago de Compostela. En 1974 los directivos del RISM le encargaron la catalogación de toda la música manuscrita española, compuesta o copiada entre 1585 y 1825, tarea en la que lleva más de 200.000 composiciones catalogadas.

Es miembro de numerosas Sociedades de Musicología del mundo y pertenece a varias Academias españolas.

En 1985 donó su biblioteca y archivo a la Universidad de Santiago. Es autor de más de 200 artículos científicos publicados y de numerosos libros. En 1989 le fue concedida la Medalla de Oro de las Bellas Artes por el Gobierno español.



Maiatzak 16
asteartea
arratsaldeko 8etan
**Kaputxinoen elizan**

Martes
16 de Mayo
20 horas
**Iglesia de Capuchinos**

# KAMARAZKO MUSIKA
# MUSICA DE CAMARA

## I

**JOAQUIN OJINAGA OSORIK – INTEGRAL DE JOAQUIN OJINAGA**

I. Fuga en sol menor.
II. Fuga en primer modo (= sol menor)
III. Fuga airosa
IV. Fuga en la menor
V. Paso de 8º tono
VI. Fuga en mi menor.
VII. Intento en Sol Mayor.
VIII. Sonata en Do Mayor.
IX. Sonata en Sol Mayor.
X. Minueto I.
XI. Minueto II.

Esteban Elizondo, organista.
Lotero F. Imaz, klabezinista.

## I I

Vals en Mi menor ........................................... *Ramón Usandizaga*
(Donostia 1889-1964)
Uso zuria ........................................................ »
Txardin saltzalia .............................................. »
Novia del campo amapola ............................ »
Si al mecer las azules campanillas ................ »
El corazón se cansa de inquietarse ............... »
Como se arranca el hierro de una herida ..... »

Inmaculada Martínez, sopranoa.
Alejandro Zabala, pianista.

# RAMON USANDIZAGA Y SORALUCE

Donostian jaio zen 1889ko martxoaren 24ean. Bere gurasoek Carlos eta Anak hazi zituzten 5 semeen arteko bigarrena zen, lehena, anaiek miresen handiaz ikusten zuten Jose Mari musikagile ospetsua zelarik.

Musika ikasketak Donostian egin zituen. Legegizona izanik ere, ez zuen inoiz musikarekiko zaletasuna utzi, eta garaiko korronteak oso ongi ezagutzen zituen, benetako autodidakta izan zelarik.

Bere anaia zaharrenarengatik sentitzen zuen mirespenak bultzatu zuen bere obra oldartzera. 1918an amaitu gabeko "La Llama" opera zuzendu eta bukatu egin zuen. 1919an, "Las Golondrinas" opera bihurtu zuen. Jose Marik piano, edo ahots eta pianoarentzat idatzi zituen zenbait obra moldatu eta egokitu egin zituen koru mistoek kantatzeko.

Apaltasun handiko gizon honek ez zuen bere musika produkzioa bultzatu, gehiena, "Itzaia" salbu, argitaratu gabe gelditu zelarik.

12 obra erlijioso inguru idatzi zuen: Salve Regina, Tota pulchra, ea... 10en bat piano edo ahots eta pianoarentzat; beste hainbeste orkestra edo koru eta orkestrarentzat: Rapsodia vasca, Suite sobre motivos que tuvieron su época, ea... 15en bat koruentzat, euskaldunak edo ez: Itzaia, Oy Bart! ea... Era berean "La capa del diablo" zartzuela idatzi zuen, 1940ko Hamabostaldian antzeztu zelarik bost aldiz. Bere Eskuizkribuak ERESBILen daude.

1941ean, Donostiako Udal Kontzerbatorioko zuzendari izendatu zuten. Bere agintepean ezarri zioten Kontserbatorioari Goi mailako Profesional tituloa. Talde instrumental, eta Musikaren Estetika eta Historiako Katedraduna izan zen, jubilatu zen arte 1963an. Era berean Udal Kontserbatorioko Orkestra sortu nahi izan zuen 1942an egin zuelarik bere aurkezpena. Orkestra horrekin batera, musika klasiko eta erromantikoaren partitura hoberenak jo zituen, eta bertako musikagileen obra garrantzitsuenak estrenatu.

Donostiako Udalak Zilarrezko Domina ezarri zion egin zituen merezimendu guztiengatik. Era berea Donostiako Orfeoiaren Ohorezko Kidea eta bere aholkularia izan zen. Honekin batera Kultur Musikaleko Elkarteko Laguntzailea eta Real Academia de Bellas Artes de San Fernando delakoaren Kidea izan zen.

Donostian hil zen 1964eko ekainaren 28an.

Nació en San Sebastián el 24 de marzo de 1889. Era el segundo de los cinco hijos que sus padres, Carlos y Ana, criaron y de los que el primero era José María, el gran compositor, por el que sus hermanos sentían gran admiración.

Ramón hizo los estudios musicales en su ciudad natal. Abogado de profesión, no abandonó su afición a la música y su inquietud por estar al tanto de las corrientes en boga, constituyéndose en un ilustrado autodidacta.

La veneración que sentía por su hermano, Joshe Mari, le impulsó a revitalizar su obra. En 1918 revisó y concluyó su inacabada ópera "La llama". En 1929 convirtió "Las golondrinas" en ópera. Además adaptó para coro de voces mixtas varias obras que Joshe Mari había escrito para piano o voz y piano.

Hombre de gran humildad, Ramón apenas promocionó su producción musical, que ha quedado inédita, excepto "Itzaya".

Compuso una docena de obras de música religiosa: Salve Regina, Tota pulchra, etc...; unas quince obras corales, vascas o no: Itzaya, Oy bart!, etc...; una docena de partituras para piano o voz y piano; otras tantas para orquesta o coro y orquesta: Rapsodia vasca, Suite sobre motivos que tuvieron su época, etc...

También compuso la zarzuela "La capa del diablo", que se representó cinco veces en la Quincena Musical Donostiarra de 1940. Sus manuscritos se hallan depositados en ERESBIL.

En 1941 fue nombrado director del Conservatorio Municipal de San Sebastián. Bajo su mandato se transformó su Grado Elemental en Profesional Superior. El ocupó además las cátedras de Conjunto Instrumental, Estética e Historia de la Música, todo ello hasta 1963, año en que se jubiló. Al mismo tiempo se empeñó en la dura tarea de fundar la Orquesta del Conservatorio, que hizo su presentación en marzo de 1942. Con ella interpretó lo más importante de la música clásica y romántica, además de estrenar importantes partituras de músicos locales.

Por los muchos méritos acumulados el Ayuntamiento de San Sebastián le distinguió con la Medalla de Plata de la Ciudad. Era también Miembro Honorario del Orfeón Donostiarra y su asesor. Asesor también de la Asociación de Cultura Musical y Miembro Correspondiente de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando.

Falleció en San Sebastián el 28 de junio de 1964.

# ESTEBAN ELIZONDO IRIARTE

Donostian sortu zen 1945ean. Lehen sariak irabazi zituen Piano eta Organu Ikasketak amaitzerakoan Donostiako Kontserbatorioan. Gaur egun bertako zuzendaria eta Organuko Katedraduna da.

Bere ikasketak Vienna-n hobetu zituen A. Heiller-ekin hasera batean eta gero M. C. Alain, L. F. Tagliavini, M. Torrent eta S. Kastner-ekin. Kontzertuak eman ditu bakarlari gisa zenbait orkestrekin, eta emanaldi ugari eskaini ditu Frantzian, Alemanian, Italian, Txekoslovakian, Polonian, Austrian, Amerikako Estatu Batuetan eta Kanadan. Musika iberiarreko eta europearreko diskak grabatu ditu. Gaur egun beste zenbait kontserbatoriotan lanean ari diren zenbait ikasle atera dira bere eskoletatik.

Berari zor zaio Gipuzkoan 1984etik aurrera ospatzen den Organu Erromantikoko Nazioarteko Ikastaroaren sorrera.

Nació en 1945 en San Sebastián. Obtuvo primeros premios, al finalizar los estudios de piano y órgano en el Conservatorio de dicha ciudad, del que actualmente es Director y Catedrático de Organo.

Perfeccionó sus estudios en Viena con A. Heiller y más tarde con M. C. Alain, L. F. Tagliavini, M. Torrent y S. Kastner.

Ha actuado como solista con diferentes orquestas y son muy numerosas sus actuaciones en Francia, Alemania, Italia, Checoslovaquia, Polonia, Austria, Estados Unidos y Canadá. Tiene grabados varios discos de música ibérica y europea. De su clase de órgano han salido varios alumnos, que hoy son profesores de órgano de diversos Conservatorios.

A su iniciativa se debe la creación del Curso Internacional de Organo Romántico que desde 1984 se celebra en Guipúzcoa.

# LORETO F. IMAZ

Donostian jaio zen.

Pianoko Karrera Amaiera Lehen Saria Ganbara Musikako Saria eta "Paulino Caballero" Saria (1974) Donostiako Kontserbatorioan. Organuko "Medaille d'or à l'unanimité" Baionako Côte Basque Eskola Nazionalean (1984) eta "Prix d'honeur de la Ville de Baione" hobekuntzako ikastaroetan (1985), Mme. Bernadette Carrau-ren zuzendaritzapean.

Organuaren karrerarekin batera, musika zaharrari erakusten dion begiruneak bultzatzen du Zenbalo eta Klabikordio-ko ikasketak egitera. Toulouse, Lyon eta Bartzelonan eman zien bere ikasketei jarraiera, X. Darasse eta Montserrat Torrent-ekin.

1988an, Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioko "Klabezin-klabikordio-Kontinuo"ko katedra atera zuen eta gaur egun Talde Barroko-ko zuzendaria da. Musika Jaialdi askotan hartzen du parte, bakarlari gisa, organu eta klabizenbaloa joaz.

Nació en San Sebastián.

Primer Premio Fin de Carrera en Piano, Premio Música de Cámara y Premio "Paulino Caballero" (1974) en el Conservatorio de San Sebastián, su ciudad natal.

"Medaille d'or à l'unanimité" en Organo, en la Escuela Nacional Côte Basque en Baiona (1984), y "Prix d'honeur de la Ville de Baione" en los cursos de perfeccionamiento (1985), dirigida por Mme. Bernadette Carrau. Paralelamente a su carrera organística, su interés por la música antigua le lleva al estudio del Cémbalo y del Clavicordio. Continua su formación en Toulouse, Lyon y Barcelona con X. Darasse y Montserrat Torrent.

En 1988 obtiene la cátedra de "Clavecín-Clavicordio-Continuo" en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián-Donostia y es directora del "Conjunto Barroco" de la misma ciudad. Numerosos Festivales musicales cuentan con su colaboración, en calidad de solista, tanto al órgano como al clavicémbalo.

# INMACULADA MARTINEZ

Bilbon jaioa, bertako Goi Mailako Kontserbatorioan ikasi zuen Consuelo Azkoagarekin, Ohorezko Saria irabaziz. P. Schilhawsky-rekin egiten du lan nazioarteko ikastaroetan.

Logroño Hiriko V. Lehiaketan, Epaimahaiaren Sari Berezia lortu zuen, eta Bartzelonako "Francisco Viñas" Nazioarteko Lehiaketan finalara heltzen den Espainiako ahots garrantzitsuenari emandako Aparteko Saria.

Euskal Herriko eta Cantabria-ko hiri nagusienetan kantatu du. Entzute berezia izan zuen Rafael Castro-k idatzitako "Integral de Canciones"en egin zuen bertsioak.

Duela gutxi Pergolesi-ren "Stabat Mater" kantatu zuen Arriaga Antzokiko Kontzertu Sakratuen Zikloaldian.

Nacida en Bilbao, estudia en el Conservatorio Superior de Música de su ciudad con Consuelo Azcoaga, graduándose con el Premio de Honor. Trabaja con P. Schilhawsky en cursos internacionales.

Obtiene un Premio especial del Jurado en el V Concurso Ciudad de Logroño; y el Premio Extraordinario de los Liceístas concedida a la finalista española de voz más importante en el Concurso Internacional "Francisco Viñas" de Barcelona.

Ha cantado en las principales ciudades del País Vasco y Cantabria. Ha tenido especial resonancia su versión de la Integral de Canciones del compositor Rafael Castro.

Recientemente ha cantado el "Stabat Mater" de Pergolesi dentro del ciclo de Conciertos Sacros del Teatro Arriaga.

# ALEJANDRO ZABALA

Donostiako Udal Kontserbatorioan egiten ditu bere ikasketak, Piano, Ganbarako Musika, eta "Paulino Caballero" Sariak irabaziz. Ondoren Emma Jiménez de Achúcarro-rekin ikasten du. Ahozko Ganbarako Musika Sailean espezializatzen da. "Marterclasses"eko pianista izan da G. Bacquier, J. Darnel eta Isabel Penagos-en zuzendaritzapean. 1981etik aurrera, Toulouse-ko Nazioarteko Lehiaketaren pianista ofiziala da Sylvaine Billier eta J. Marchwinsky-rekin batera.

ABAOko Opera Jaialdian aritzen da barneko zuzendari lanetan, eta Arriaga Antzokiarekin egiten du lan.

Bere azken kontzertuen artean ondoko hauek azpimarra daitezke: Shostakovich-en I. Kontzertuan bakarlari izan zen Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin E. García Asensio-ren zuzendaritzapean. Errezitaldi bat eman zuen Bartzelonan Margaret Price-rekin.

Realiza sus estudios en el Conservatorio Municipal de San Sebastián, donde obtiene los Primeros Premios de Piano, Música de Cámara y el Premio "Paulino Caballero". Estudia luego con Emma Jiménez de Achúcarro. Se especializa en la Música de Cámara Vocal. Ha sido pianista de "Masterclasses" impartidos por G. Bacquier, J. Darnel e Isabel Penagos. Desde 1981 es pianista oficial del Concurso Internacional de Toulouse, junto a Sylvaine Billier y J. Marchwinsky.

Colabora como maestro interno con el Festival de Opera de ABAO, y con el Teatro Arriaga.

Entre sus más recientes actuaciones destacan: solista en el Concierto n.º 1 de Shostakovich con la Orquesta Sinfónica de Bilbao dirigida por E. García Asensio; y un Recital en Barcelona con Margaret Price.



Maiatzak 17
asteazkena
arratsaldeko 8etan
**Kaputxinoen elizan**

Miércoles
17 de Mayo
20 horas
**Iglesia de Capuchinos**

# SINFONISMOA DONOSTIAKO KONTSERBATORIOAN
# SINFONISMO EN EL CONSERVATORIO DE SAN SEBASTIAN

Suite de melodías vascas:
- Eguntto batez.
- Canción de cuna.
- Ezpatadantza ........ *César Figuerido* (Cuenca 1876-1956)

Sinfonía sobre motivos vascos ........ *Beltrán Pagola* (Donostia 1878-1950)
(Primer movimiento)

Coral en La menor ........ *José Uruñuela* (Gasteiz 1891-1963)

Todos le llevan ........ *Francisco Cotarelo* (Gasteiz 1884-1943)

Rapsodia mexicana ........ *José Luis Iturralde* (Donostia 1908-1985)

Canciones de niños:
- Hiru Errege.
- Carta del Rey ha llegado.
- Antón se fue a La Habana ........ *Ramón Usandizaga* (Donostia 1889-1964)

Canciones populares:
- ¿Qué llevas en el pico? (asturiana).
- Txarmangarria zera (zortziko).
- Nunca he podido olvidar (jota) ........ *Ramón Usandizaga*

Errenteriako Orereta Koroa.
Zuzendaria: Imanol Elizasu.

Errenteriako Oiñarri Koroa.
Zuzendaria: Carlos Rodríguez.

Donostiako Musika Udalkontserbatorio Nagusiko Orkestra Sinfonikoa.
Zuzendaria: Tomás Aragüés.

# SINFONISMOA DONOSTIAKO KONTSERBATORIOAN

Irakaslegoaren maila tekniko eta pedagogikoan datza edozein kontserbatorioren ospe eta kategoriaren oinarri tinkoa. Aldez aurretik esandako hau betetzen bada, musikaren irakaskuntzan aritzen diren entitate hauei dagozkien arazo bereziak erraz gaindituko dira.

1941etik 1963ra Donostiako Kontserbatorioko Zuzendaria izan zen Ramon Usandizagaren Jaiotzaren I. Mendeurrena ospatzen denean, gizon honek egin zituen merituak goratu nahi ditugu eta berarekin lan egin zutenak Gipuzkoako musikaren mugimendua berreskuratzeko bereziki aipatu.

Gerraondoko garaia txarra suertatu zen Donostia eta Gipuzkoarentzat. Eta arrazoi honengatik batez ere, esan daiteke berak eta bere ekipoak egin zuten etengabeko lana meritu handikoa izan zela. Bere eskoletatik atera dira ikasle aurreratuak, beren irakasleen izenak, eman dituzten fruituei esker, goi mailan ezarri dituztenak. Patrimonio garrantzitsua utzi ziguten, beren konposizio musikalei bidez. Ikasle haietariko batzuk oraindik gure artean diraute, ospe handiko gizonak direlarik jenero musikal ezberdinetan egin duten lan sakonari esker: Luis Urteaga, Tomas Garbizu, Francisco Escudero. Baina beste batzuk artxiboetara pasa dira, beren obra ia ezezaguna gertatu delarik. Hau esaten dugunean, jenero sinfonikoan aritu direnei buruz ari gara, beren obrak programetan inoiz ikusi ez direlarik. Hauen artean eta guztien buru Ramon Usandizaga jarri nahi dugu. Bere biografia egitarau honen beste orrialde batean ikus daiteke. Honekin batera aipa ditzagun beste batzuk:

Cesar Figuerido Guelbenzu. Cuenca-n jaio zen 1876an, baina Irunen bizi izan zen txikitatik. Bere lehen ikasketak bere aitarekin egin zituen, musikari militarra zenarekin eta ondoren, Bilbo eta Irungo Udal Akademietan sakondu zituen. Gero, Paris-eko Kontserbatorioan aritu zen. Gaztetan, Europako teatrorik garrantzitsuenetan eman zituen bibolineko kontzertuak. 1914ean, Donostian finkatu zen, bibolin eskolak ematen zituelarik. Donostiako Kontserbatorioko Katedraduna eta zuzendariordea izan zen. Bere biziaren azken etapan "Compendio de la técnica del violín" idatzi zuen, zenbait kontserbatoriotan nahitaezko metodo gisa ezarri zelarik. Bibolin eta pianoarentzat idatzi zituen obrak argitaratuak izan ziren, ez ordea bere obra sinfonikoa, gaur egun ERESBILen dagoelarik. Kursaal-eko Orkestraren zuzendaria izan zen eta 1932an Donostiako Oskestra Filarmonikoa sortu zuen 1936an desagertu zen arte bere zuzendaria izan zelarik. Frantziako Gobernuak "Oficial de Instrucción Pública" tituloa eman zion eta Donostiako Udalak Hiriaren Zilarrezko Domina ezarri. Donostian hil zen 1956an.

Beltran Pagola Goya. Donostian jaio zen 1878an. 17 urte zituelarik piano ikasketak amaitu zituen Madrilen, Karrera bukaerako Lehen Saria irabaziz. Donostiara itzuli zenean, Gran Kasino Seikotean eta Larrocha-ko Orkestra Sinfonikoan aritu zen. Arte Ederretako Akademiako Armonia eta Konposizioko irakasle izendatu zuten. Gai hori 46 urtetan zehar irakatsi zuen, kontserbatorioko etapa guztiak ezagutu zituelarik. 1928an, lehiaketaren bidez pianoko katedra atera zuen.

J. Mª Usandizaga, Iraola, Almandoz, ea... izan zituen ikasle, eta Armonia eta Konposizio gaietan Sorozabal, Iturralde, Urteaga, Garbizu eta Escudero. Armoniako Tratadu bat idatzi zuen bertan gaiari buruzko teoria berrienak azalduz. Zahartzaroan ekin zion konposizio alderdiari, jenero sinfonikoa sakonki jorratuz. Lau sinfonia, sinfonieta bat, zenbait poema, "capricho" eta fantasia sinfonikoak idatzi zituen. Donostiako Udalak Zilarrezko Domina ezarri zion. Donostian hil zen 1970ean.

Jose Uruñuela Fernandez de Larrea. Gasteizen jaio zen 1891n. Zientzia Kimikoak ikasten aritu zen, musikarekiko zuen zaletasunarengatik amaitu gabe utzi zituelarik. Musika zaharra eta euskal folklorearen ikertzaile sutsua izan zen. Musika zaharrari zion begirunetik zetorkion bere obra musikaletan soma daiteken nortasun handiko gusto berezia eta gure doinu herrikoiei erakusten zion errespetu fina.

Era berean, inpresionismo frantziarraren aztarnak ikusten zaizkio bere obrari, batez ere, Gerra Zibilaren garaian ondoko herrira desterratua izan zenean, bertako mugimendu musikalarekin izan zuen harremanen ondorioz. 1946an, Donostian ballet klasikoko akademia bat zabaldu zuen Kursaal-en. Uruñuelak lan handia egin zuen alor honetan, eta bere eskoletatik dantzari asko atera ziren ballet-eko taldeetan parte hartzeko. Bera izan zen Donostian arte eder honen aintzindaria. Meritu handiko lan hori eskertzeko Donostiako Udalak Kontserbatorioan sartu zuen bere akademia. Donostian hil zen 1963an.

Francisco Cotarelo Romanos. Gasteizen jaio zen 1884ean. 1896an Madrilera joan zen bere familiarekin eta hango kontserbatorioan egin zituen bere ikasketa musikalak. 1913an Donostiara etorri zen Gran Kasino-n pianoa jotzen aritu zelarik. Udal Akademiako piano katedra lortu zuen lehiaketaren bidez. Ondoren urte asko igaro zituen Kontserbatorioko piano irakasle bezala, bertako etapa guztien belaunaldi pianistikoak bere eskuetatik pasa zirelarik. 1934ean, Musikaren Estetika eta Historia irakasten hasi zen. Ganbarako musika, musika sinfonikoa, piano, koral eta zartzuelak idatzi zituen. Donostian hil zen 1943an.

Jose Luis Iturralde. Donostian jaio zen 1908an. Beltran Pagolaren ikaslea izan zen piano eta konposizio gaietan, karrera bukaerako saria lortuz. Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzaz, Madrilera joan zen ikasketak sakontzera. Han, Oskestra Filarmonikoan bibolina jo zuen 1955ean Donostiako Kontserbatorioko Solfeo eta Musikaren Teoriako Katedra lehiaketaren bidez atera zuen arte. Orkestran hartu zuen esperientzia oso baliotsua gertatu zitzaion era guztietako musika tresnentzat idatzi zuen ganbarako musikan aritzeko. Era berean, musika lirikoa eta sinfonikoa jorratu zituen. Donostian hil zen 1985ean.

# SINFONISMO EN EL CONSERVATORIO DE SAN SEBASTIAN

Una de las bases firmes de la categoría y prestigio de un Conservatorio radica en el nivel técnico y pedagógico de su claustro de profesores. Con este presupuesto podrán superarse fácilmente otros problemas específicos de estas entidades de la enseñanza musical.

La celebración del I Centenario del nacimiento de Ramón Usandizaga, director del Conservatorio de San Sebastián desde 1941 hasta 1963, nos impele a elevar un canto a los méritos por él contraídos y a evocar a quienes más directamente con él colaboraron en la recuperación del movimiento musical guipuzcoano. Etapa espinosa y difícil la que correspondió a San Sebastián y Guipúzcoa en la postguerra. Por eso mismo es más meritoria su tarea y la de su equipo, que con tanta entrega y calidad laboraron. De sus aulas salieron discípulos aventajados, que son y serán la mejor corona de sus profesores. Aún tuvieron empuje para legarnos un importante patrimonio, a través de sus composiciones musicales. Varios de ellos están entre nosotros, gozando del renombre merecidamente ganado por su profundo cultivo de la composición en diversos géneros musicales: Luis Urteaga, Tomás Garbizu, Francisco Escudero. Pero otros han pasado a los archivos, sin que su obra apenas sea conocida. Nos referimos especialmente a los que cultivaron el género sinfónico, sin que sus obras se vean en los programas. Pongamos al frente de ellos a Ramón Usandizaga. Su biografía puede leerse en otra página de este programa. A su lado evoquemos a otros.

César Figuerido Guelbenzu. Nació en Cuenca en 1876, pero vivió desde niño en Irún. Hizo sus primeros estudios con su padre, músico mayor militar, y los amplió en las Academias Municipales de Irún y Bilbao. Más tarde estudió en el Conservatorio de París. De joven vivió una brillante etapa de concertista de violín por importantes escenarios europeos. En 1914 fijó su residencia en San Sebastián, para integrarse plenamente en la enseñanza del violín. Ocupó la cátedra en el Conservatorio de esta ciudad, siendo al mismo tiempo subdirector del centro. En la última etapa de su vida escribió "Compendio de la técnica del violín", que fue impuesto en varios Conservatorios. Sus obras para violín y piano fueron editadas, no así su obra sinfónica, que permanece inédita y depositada en ERESBIL. Fue director de la Orquesta del Kursaal y en 1932 fundó la Orquesta Filarmónica de San Sebastián, de la que fue director hasta que se disolvió en 1936. El Gobierno francés le dió el título de "Oficial de Instrucción Pública" y el Ayuntamiento de San Sebastián la Medalla de Plata de la Ciudad. Falleció en San Sebastián en 1956.

Beltrán Pagola Goya. Nació en San Sebastián en 1878. A los 17 años terminó la carrera de piano en Madrid, obteniendo el Primer Premio fin de carrera. De regreso a San Sebastián formó parte del Sexteto del Gran Casino y de la Orquesta Sinfónica de Larrocha. Fue nombrado profesor de Armonía y Composición de la Academia de Bellas Artes en 1902, asignatura que enseñó durante 46 años, conociendo las diversas etapas por las que ha pasado el Conservatorio.

En 1928 ganó por oposición la cátedra de piano. Fueron discípulos suyos José M.ª Usandizaga, Iraola, Almandoz, etc... y en Armonía y Composición los Sorozábal, Iturralde, Urteaga, Garbizu y Escudero. Escribió un tratado de Armonía que recogió las teorías más modernas del género. En plena madurez inició su faceta de compositor, cultivando profundamente el género sinfónico, en el que dejó escritas cuatro sinfonías, una sinfoneta, varios poemas, caprichos y fantasías sinfónicos. El Ayuntamiento de San Sebastián le concedió la Medalla de Plata de la Ciudad. Falleció en 1950 en San Sebastián.

José Uruñuela Fernández de Larrea. Nació en Vitoria en 1891. Estudió ciencias químicas, que abandonó, porque pudo más su afición a la música. Fue un investigador nato sobre la música antigua y sobre el folklore vasco. En sus obras musicales se destaca un sabor personalísimo, consecuencia de su veneración por la música antigua, a la vez que un respeto delicado a nuestras melodías populares. También el impresionismo francés dejó huella en sus composiciones, máxime tras su contacto con el movimiento musical del país vecino, donde padeció destierro en la guerra civil española. A su regreso se estableció en San Sebastián, donde en 1946 abrió una Academia de ballet clásico en el Kursaal.

Uruñuela trabajó incansablemente en la promoción y cultivo de la especialidad y de sus clases han salido muchos alumnos que se han integrado en diversos grupos de ballet, siendo el pionero de este bello arte en la capital guipuzcoana. Ante la meritoria labor de su desinteresado esfuerzo, el Ayuntamiento integró su Academia en el Conservatorio. Falleció en San Sebastián en 1963.

Francisco Cotarelo Romanos. Nació en Vitoria en 1884. Trasladada la familia a Madrid en 1896, hizo sus estudios musicales en el Real Conservatorio. En 1913 pasó a San Sebastián, donde se integró como pianista en el Gran Casino. Al mismo tiempo ganó por oposición la cátedra de piano en la Academia Municipal. Su vida transcurrió como profesor de muchas generaciones pianísticas de las distintas etapas del Conservatorio, donde en 1934 amplió sus enseñanzas a las de Estética e Historia de la Música. Compuso además música de cámara y sinfónica, piano, coral, zarzuelas, etc. Falleció en San Sebastián en 1943.

José Luis Iturralde. Nació en San Sebastián en 1908. Fue alumno de Beltrán Pagola en piano y composición, obteniendo el premio fin de carrera. Becado por la Diputación de Guipúzcoa, amplió estudios en Madrid, donde permaneció como violinista de la Orquesta Filarmónica, hasta que en 1955 ganó por oposición la Cátedra de Solfeo y Teoría de la Música en el Conservatorio donostiarra. Su experiencia de la orquesta le sirvió para escribir numerosas partituras de música de cámara de toda clase de instrumentos, pero además cultivó la música lírica y la sinfónica. Murió en San Sebastián en 1985.

# ORERETA ETA OIÑARRI KOROAK

Jose Luis Ansorenak 1968an sortu zuenetik, Orereta Haur Korua heziketa bide zuzen bati jarraitu zaio kantu koralaren arloan. Bere emanaldiek Tolosako Haurren Abesbatzen Lehiaketan... eta 1976an "Eguberri Abestiak" diskaren grabazioak eman diete bere kantariei heldutasun bikaina, urteen poderioz Jose Luis Ansorenak berak sortutako Oiñarri gazte korua osatuz. Zuzendaritza eskola gisa balio izan zaizkie bi koruok, espezialitate horretan nabarmenak gertatu diren bertako kantariei. Oiñarri 1976an emakumezko koru bezala hasi zen eta 1979an gizon-emakumezko bihurtu.

Urte horretatik aurrera kontzertu ugari eman ditu Jaialdietan eta Lehiaketetan, Candás, Torrevieja, Burgos, Zaragoza, Avilés eta Euskal Herriko leku askotan.

1983, 1984 eta 1987. urteetan, Kultur Ministraritzako Gaztediaren Zuzendaritza Orokorrak aukeratu zuen Cuenca-n ospatzen den gazteen koruentzat antolatutako Polifoniako Topaketetan parte hartzeko. Orereta eta Oiñarri koruak haurrek eta gazteek pasa behar dituzten etapak dira, beren tutorea den Andra Mari Abesbatzan sartzeko.

Orereta, coro infantil fundado por José Luis Ansorena en 1968, ha seguido una disciplinada trayectoria de educación en el canto coral. Sus actuaciones en Festivales Interescolares, Concursos de Villancicos, Certamen Coral Infantil de Tolosa, etc. y su grabación discográfica "Eguberri abestiak" en 1976 dieron a sus componentes una espléndida madurez, que con los años ha llegado a generar el coro juvenil Oiñarri, también fundado por José Luis Ansorena. Ambos coros han servido también de escuela de dirección coral para sus cantores más significados en esta especialidad. Oiñarri se inició como coro femenino en 1976 y en 1979 como coro mixto. A partir de este año ha participado en Festivales y Concursos en Candás, Torrevieja, Burgos, Zaragoza y Avilés, además de actuar en muchas poblaciones del País Vasco.

En 1983, 1984 y 1987 fue seleccionado por la Dirección General de la Juventud del Ministerio de Cultura, para participar en el Encuentro de Polifonía para coros juveniles de Cuenca. Orereta y Oiñarri son las etapas infantil y juvenil de acceso a la Coral Andra Mari de Rentería, tutora de ambas formaciones.

# DONOSTIAKO KONTSERBATORIOKO ORKESTRA SINFONIKOA

1980aren bukaeran hasi zen lanean. Kontserbatorioko irakasle eta ikasle talde batek osatu zuen eta 1982an Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz finkatu zen Gipuzkoan zehar kontzertu didaktiko eta sinfoniko-koralak eskainiz.

1985etik aurrera, Donostiako Kontserbatorioko Udal Erakunde Autonomoaren barnean hartu zuen bere nortasuna Orkestrak, ikasturtean zehar kontzertuak emanez.

Bere historia laburrean, izen handiko koruekin batera eman ditu kontzertuak hala nola, Andra Mari Abesbatza, Easo Koroa, Donostiako Orfeoia, Donosti Ereski Korua, eta Kontserbatorioko Koruarekin alde batetik eta bestetik Donostiako Kontserbatoriotik ateratako kantari eta musikatresna jole bakarlariekin.

Orkestraren beste helburu garrantzitsua, Konposizio eta Orkestra Zuzendaritzako ikasleentzat tresna praktiko bat izatea da, ikasle guzti horiek egindako obrak entzun ditzaten.

Sortu zenetik, Donostiako Kontserbatorioko Konposizio eta Orkestra Zuzendaritzako Katedraduna den Tomas Aragües da bere Zuzendari nagusia.

Comenzó su andadura a finales de 1980. Formada por un grupo de profesores y alumnos del Conservatorio, comenzó a afianzarse en 1982, con la ayuda de la Diputación Foral de Guipúzcoa, desarrollando una importante tarea a base de conciertos con programas didácticos y sinfónico-corales en muchos puntos de Guipúzcoa.

A partir de 1985, adquirió ya su propia personalidad dentro del Organismo Autónomo Municipal del Conservatorio de San Sebastián, desarrollando una temporada normal de conciertos a todo lo largo del curso.

A lo largo de su corta historia han colaborado en sus programas entidades corales guipuzcoanas de renombre: Coral Andra-Mari, Coro Easo, Orfeón Donostiarra, Coro Donosti Ereski, Coro del Conservatorio... así como solistas instrumentales y vocales, en su mayoría procedentes de las aulas del Conservatorio donostiarra.

Otro de los cometidos importantes de la Orquesta es ser el instrumento de trabajo práctico de los alumnos de Dirección de Orquesta y de Composición, que pueden así oir algunos de los trabajos realizados por ellos mismos.

Desde su creación es Director titular de la Orquesta, Tomás Aragüés, Catedrático de Dirección de Orquesta y de Composición del Conservatorio de San Sebastián.

# TOMAS ARAGÜES BERNAD

Albalate del Arzobispo-n (Teruel-en) jaio zen 1935eko urriaren 19an.

Gaur egun, Donostiako Kontserbatorioko Konposizio eta Orkestra Zuzendaritzako Katedraduna da. Easo Koru ospetsuaren zuzendaria izan zen 9 urtetan zehar eta 3 urtetan zehar Donostiako Kontserbatoriokoa. 1980an, Kontserbatorioko Orkestra berria osatzen da bera delarik hasieratik bere zuzendari nagusia.

Konposizio arloan egin du lanik handiena:

—Hiru Sinfonia (argitaratu gabeak), Inmaculada (poema sinfoniko-korala 1959an), Gure Etxea (1962an), Tronpa eta Orkestrarentzat Kontzertua (1973an), Quinteto Vasco (1975ean), Bost eleiz eresi (1979an), Suite Romántica (1982an), Txistu eta Orkestrarentzat Kontzertua (1984ean), MUSIKASTE 84eko Itxialdiko Kontzertuan estrenatua. Lau tarte sinfoniko (1984ean), "Tria ab uno" (zeharkako flauten familia eta orkestrarentzat kontzertua, 1986an), Bibolin eta Orkestrarentzat kontzertua (1988an).

—Konposizioko koral sailean, sari garrantzitsuak irabazi zituen Oviedo, Torrevieja, Bilbo eta Tolosako Lehiaketetan.

—1980an, "Annunciate la Parola" kantatarengatik, Erroman Konposizioko Nazioarteko Saria irabazi zuen.

—1982an, "Suite de Concierto" obrarengatik, Valencia-n Banda Sinfonikoentzat Konposizioko Nazioarteko Saria lortu zuen.

Nace en Albalate del Arzobispo (Teruel) el 19 de Octubre de 1935.

En la actualidad es titular de la cátedra de Dirección de Orquesta y Composición del Conservatorio de San Sebastián. Ha sido Director durante nueve años del célebre CORO EASO donostiarra y durante tres años Director del Conservatorio de San Sebastián. En 1980 se organiza la nueva Orquesta del Conservatorio de la que es titular desde sus comienzos.

Su labor más amplia se sitúa en el campo de la Composición:

—Tres sinfonías (inéditas), Inmaculada (poema sinfónico-coral 1959), Gure etxea (1962), Concierto para Trompa y Orquesta (1973), Quinteto Vasco (1975), Bost eleiz eresi (1979), Suite Romántica (1982), Concierto para Txistu y Orquesta (1984), estrenado en el concierto de clausura de Musikaste (1984), Cuatro espacios sinfónicos (1984), "Tria ab uno" (concierto para la familia de flautas traveseras y orquesta, (1986), Concierto para Violín y Orquesta (1988).

—Tiene en su haber importantes premios, de composición coral en los festivales de Oviedo, Torrevieja, Bilbao, Tolosa.

—Premio Internacional de Composición en Roma por la cantata "Annunciate la Parola" (1980).

—Premio Internacional de Composición para Bandas Sinfónicas en Valencia, por su obra "Suite de Concierto" (1982).



Maiatzak 18
osteguna
arratsaldeko 8etan
**Kaputxinoen elizan**

Jueves
18 de Mayo
20 horas
**Iglesia de Capuchinos**

# ABANGOARDIAKO EUSKAL MUSIKA GIZONAK
# MUSICOS VASCOS DE VANGUARDIA

Distancias (Pianoa) ........ *Isabel Urueña* (León)

Sonata para clarinete y piano ........ *Jesús M.ª Etxeberria* (Pamplona 1963- )

Cuarteto para cuerdas ........ *Joselu Ruiz de Gordoa* (Araia)

* * *

Dos piezas para flauta y clavecín.
(Antonio Machadoren 2 poemetan oinarrituak)

— Hilandera.
— Soledades ........ *Enrique Ugarte* (Tolosa 1957- )

Tiempo muerto ........ *Carlos Villasol* (Portugalete 1961- )
(Biolina, biola, biolonzello eta klarinetea)

Cuarteto de cuerda n.º 2 ........ *Ramón Lazkano* (San Sebastián 1968- )

Auñamendietako Kamara Taldea:

Slawomir Arszyñski, biolina.
Pilar Ballaz, biolina.
Malgorzata Tkaczyk, biola.
Rodolfo Zanni, biolonzelloa.
Alicia Sueskun, flauta.
Xabier Muñoz, klarinetea.
Rosa Kaballin, piano eta klabezina.

Jaime Berrade, zuzendaria.

Vicente Egea, zuzendaria.

# ISABEL URUEÑA

Leon-en jaioa, Alicante, Madrid, Leon eta Logroño-n (Dolores Malumbres-ekin) egin zituen bere ikasketak.

Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan ikasi zituen Fuga eta Konposizioa. Estetika Garaikidea Gonzalez Acilu eta Ramon Barce-rekin. Konposizioa literatura eta periodismoa tartekatzen ditu.

"Distancias" obrak pianoaren azterketa pertsonal bat izan nahi du, bereziki bere tesitura zabaletara begira, bere sonoritate ahalmenen elementu mugatzaile gisa.

Musika obra hau Donostian estrenatu zen 1988ko ekainean, Euskal Musika Berriaren II. Jardunaldietan.

De origen leonés, ha estudiado en Alicante, Madrid, León y Logroño (con Dolores Malumbres).

En el Conservatorio Pablo Sarasate de Pamplona cursó Fuga y Composición. Estética contemporánea con González Acilu y Ramón Barce. Compagina su dedicación a la composición con la literatura y el periodismo.

"Distancias" trata de realizar un análisis personal del piano, enfocado especialmente a sus amplias tesituras, como el elemento definitorio de sus posibilidades sonoras.

Esta obra se estrenó en las II Jornadas de Nueva Música Vasca en junio de 1988 en San Sebastián.

# JESUS Mª ETXEBERRIA

Iruñean jaio zen 1963an. Bere lehen ikasketa musikalak Oliten egin zituen, baina klarinetekoak Iruñean amaitu zituen eta Paulino Caballero eta Karrera Amaiako sariak irabazi zituen. 1985ean Oliteko Bandako zuzendari izendatu zuten, eta une berean Donostiako Kontserbatorioko Banda Sinfonikoan klarinete plaza lortu zuen bertako zuzendariorde izendatu zutelarik.

Konposizioko ikasketak Francisco Escudero, Agustin Gonzalez Acilu eta Ramon Barce-rekin egin zituen. Orkestra zuzendaritzakoak berriz, Tomas Aragües, Maximiano Valdés eta Julius Kalmar-ekin (Vienna). Egun, Londres-eko Royal Academy of Music-en ari da azken espezialitate honetan.

Donostiako Kontserbatorioko Banda Sinfonikoa, Donostia Kamar Orkestra eta Iruñeko "Santa Cecilia" Orkestra zuzendu ditu.

Klarinete eta pianoarentzat eginiko sonata 1985ean idatzi zuen eta 1988an estrenatu Londresen. Serenata klasikoaren antzera egina dago nahiz eta aldaketa txiki batzuk ukan. Donostian, 1988ko ekainean estrenatu zen Euskal Musika Berriaren II. Jardunaldietan.

Nació en Pamplona en 1963. Hizo sus primeros estudios musicales en Olite, pero concluyó los de clarinete en Pamplona, siendo premio Paulino Caballero y Fin de Carrera.

Nombrado en 1985 Director de la Banda de Olite, obtuvo a la vez la plaza de clarinete principal de la Banda Sinfónica del Conservatorio de San Sebastián, siendo nombrado subdirector de la misma.

Ha estudiado Composición con Francisco Escudero, Agustín González Acilu y Ramón Barce. Dirección de Orquesta con Tomás Aragües, Maximiano Valdés y Julius Kalmar (Viena). Actualmente cultiva esta especialidad en la Royal Academy of Music de Londres.

Ha dirigido la Banda Sinfónica del Conservatorio de San Sebastián, la Donostia Kamara Orkestra y la Orquesta Santa Cecilia de Pamplona.

Su sonata para clarinete y piano fue compuesta en 1985 y estrenada en Londres en 1988. Tiene forma de serenata clásica, ligeramente modificada. Fue estrenada en las II Jornadas de Música Vasca en junio de 1988 en San Sebastián.

# JOSE LUIS RUIZ DE GORDOA

Araian (Araban) jaio zen. Bere lehen ikasketak Gasteizeko Kontserbatorioan egin zituen. Konposizio ikasketak Pedro de Felipe, Juan Cordero, Anton Garcia Abril, Roman Alis eta Carmelo Bernaola-rekin egin ditu. Orkestra Zuzendaritza Enrique Garcia Asensio-rekin.

Kantak, pianoarentzako obrak, Bariazioak piano eta orkestrarentzat, 1. Sinfonia, ea... egin ditu.

Gasteizeko "Jesus Guridi" Musika Eskolako Kontrapunto eta Armoniako irakaslea da.

Bere "Cuarteto para cuerda" obrak Gasteizeko Aurrezki Kutxa Munizipalak antolatutako Konposizioko IV. Lehiaketako Lehen Saria irabazi zuen. Musika obra hori Donostian 1988ko ekainean estrenatu zen Euskal Musika Berriaren II. Jardunaldietan.

Nació en Araya (Alava). Hizo sus primeros estudios musicales en el Conservatorio de Vitoria. Ha estudiado composición con Pedro de Felipe, Juan Cordero, Antón García Abril, Román Alís y Carmelo Bernaola. Dirección de Orquesta con Enrique García Asensio.

Ha compuesto Canciones, Piezas para Piano, Variaciones para Piano y Orquesta, Sinfonía n.º 1, etc...

Actualmente es profesor de Armonía y Contrapunto en la Escuela de Música "Jesús Guridi" de Vitoria.

Su "Cuarteto para cuerda" obtuvo el Primer Premio en el IV Concurso de Composición de la Caja de Ahorros Municipal de Vitoria. Fue estrenado en las II Jornadas de Nueva Música Vasca en junio de 1988 en San Sebastián.

# ENRIQUE UGARTE ALONSO

Tolosan jaio zen 1957an. Ikasketa musikalak Donostiako Kontserbatorioan egin zituen, emaitza ikaragarri onak izan zituelarik.

Akordeoia jotzeko dohain bereziko gizon honek, kontzertu asko eta grabazio ugari egin ditu, etxean eta kanpoan sari garrantzitsuak jaso dituelarik.

Aristrain Fundazioak eta Alexander Von Humboldt Fundazioak beka eman ziotenean, 1979 eta 1981 bitartean ikasketak hobetu zituen München-en "Hochschuele for Music" Goi Mailako Musika Eskolan. Konposizioko azterketan lehena suertatu zenean, Eskola bereko "Meisterklasse"n sartu zen bere ikasketei jarraiera emateko 1983 arte. Urte horretan, München-eko Orkestra Sinfonikoa zuzendu zuen "Kalejira" obra estrenatuz.

1983tik 1987ra zuzendaritza eta musikaren fenomenologiako ikasketak egin zituen Sergiu Celibidache-rekin eta Mainz-en Johannes Gutenberg-ekin.

Bere obra guztien artean ondoko hauek azpimarra daitezke: Oboe eta pianoarentzako Preludioa, Kuartetoa flauta, oboe, klarinete eta fagotarentzat, Sokako kuartetoarentzat "Capricho"a ea...

Nació en Tolosa en 1957. Hizo sus estudios musicales en el Conservatorio de San Sebastián, con gran brillantez de resultados.

Especialmente dotado para el acordeón, ha tenido una brillante etapa de conciertos y grabaciones, además de obtener premios nacionales y extranjeros. Becado por la Fundación Aristrain y por la Fundación Alexander Von Humboldt, de 1979 a 1981 amplió sus estudios en la Escuela Superior de Música "Hochschuele for Music" en Munich. Tras obtener el número 1 en el examen de Composición, ingresó en la "Meisterklasse" de la citada Escuela Superior, continuando sus estudios hasta 1983. En este año dirigió a la Orquestra Sinfónica de Munich con el estreno de su obra "Kalejira".

De 1983 a 1987 estudia dirección y fenomenología de la música en Munich con Sergiu Celibidache y en Mainz con Johannes Gütenberg.

Entre sus obras se cuentan "Preludio para oboe y piano", "Cuarteto para flauta, oboe, clarinete y fagot", "Capricho para cuarteto de cuerda", etc.

# CARLOS VILLASOL

1961ean jaio zen Portugaleten (Bizkaian) eta Musika eta Filosofiako (Artearen Estetika eta Filosofia Sailean) ikasketak egin zituen. Sortze lanak kritikako lanekin tartekatzen ditu "El País" egunkarian eta "Ritmo" eta "Scherzo" aldizkarietan idazten duelarik. "Tiempo muerto" musika obra estreno mundiala izan da Mexikoko "X Foro Internacional de Música Nueva" delakoan 1988ko apirilean.

Bere obren artean ondoko hauek azpimarra daitezke: "Uralalla", "Ceci n'est pas une hornpipe", "Tres tristes tríos", "Aire frío", ea...

Nació en Portugalete (Vizcaya) en 1961, y cursó estudios de música y filosofía (especialidad de Estética y Filosofía del Arte). Compagina la creación y la crítica, colaborando en publicaciones como el diario "El País" o las revistas "Ritmo" y "Scherzo". Su composición "Tiempo muerto" ha sido estrenada con carácter mundial dentro del X Foro Internacional de Música Nueva, celebrado en la Ciudad de Méjico en abril de 1988.

Entre sus obras: "Uralalla", "Ceci n'est pas une hornpipe", "Tres tristes tríos", "Aire frío", etc.

# RAMON LAZKANO ORTEGA

Donostian jaio zen 1968an. Donostiako Kontserbatorioan egin zituen ikasketa musikalak: piano ikasketak Juan Padrosarekin eta Armonia, Kontrapuntoa, Fuga eta Konposizioa Francisco Escuderorekin.

1984ean Armoniako 2. Saria irabazi zuen eta 1986an Donostiako Kontserbatorioan Konposizioko Lehen Saria. Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzaz bere ikasketei jarraiera eman die Pariseko Musika Kontserbatorio Nagusian.

Kontzertuak eman ditu Donostian, Bilbon, Lekeitioko Nazioarteko Jajaldian, kontzertu horietan bere obrak estrenatu dituelarik.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak 1988ko martxoan bere Sinfonia estrenatu zion. Sinfonia hori F. Escuderorekin egindako ikasketen emaitza da. "Cuarteto de cuerda, n.º 2" obra erabateko estrenoa da gure artean.

Nació en San Sebastián en 1968. Hizo sus estudios musicales en el Conservatorio de San Sebastián: piano con Juan Padrosa y Armonía, Contrapunto, Fuga y Composición con Francisco Escudero.

En 1984 obtuvo el 2.º Premio de Armonía y en 1986 el 1.º de Composición en el Conservatorio de San Sebastián. Becado por la Diputación Foral de Guipúzcoa ha continuado sus estudios en el Conservatorio Nacional Superior de Música de París.

Ha participado como concertista en San Sebastián, Bilbao, Festival Internacional de Lekeitio, etc... en cuyos programas ha estrenado obras suyas.

La Orquesta Sinfónica de Euskadi le estrenó en marzo de 1988 su Sinfonía, fruto de sus estudios con F. Escudero. "Cuarteto de cuerda, n.º 2" se presenta como estreno absoluto.

# AUÑAMENDIETAKO KAMARA TALDEA

Iruñeako Taldeak 1984ean, musika joleen elkarte bat sortu zuen "Grupo de Cámara de Pamplona" izena ezarri ziotelarik. Talde honek kalitate handiko kontzertuak eman ditu, Iruñean, Donostian, Madrilen, Errenterian, Alcoy-en, Guadalajara-n, ea...

Talde hau osatzen duen kide kopuruak eta beren sorlekuak izena aldatzea gomendatu zuten: Auñamendietako Kamara taldea-Grupo de Cámara de los Pirineos. Beren profesionalizatzeak konpromezuei tinko heltzea eta XX. mendeko errepertorio kameristikoa (nahiz hil diren klasikoen arloan, nahiz bizirik dihardutenen arloan) lantzeko gaitasuna hobetzera bultzatu du.

Era berean, benetako eskola bihurtu da musika berriaren interpretazio arloan eta interprete baliotsuen tranpolin bikaina.

El Grupo Iruñeako Taldea creó en 1984 una agrupación de intérpretes que llamó "Grupo de Cámara de Pamplona", que ha tenido brillantes actuaciones en Pamplona, San Sebastián, Madrid, Rentería, Alcoy, Guadalajara, etc.

La ampliación del número de intérpretes y su procedencia han aconsejado el cambio de denominación:
"Auñamendietako Kamara Taldea-Grupo de Cámara de los Pirineos". La profesionalización de sus componentes ha creado un mayor asentamiento en sus compromisos y una mayor capacidad para el cultivo del repertorio camerístico del siglo XX, tanto en lo que se refiere a los clásicos fallecidos, como a los vivos. Al mismo tiempo se constituye en auténtica escuela de interpretación de la música nueva y excelente trampolín para valiosos intérpretes.





Maiatzak 19
ostirala
arratsaldeko 8etan
**Kaputxinoen elizan**

Viernes
19 de Mayo
20 horas
**Iglesia de Capuchinos**

# KONTZERTU SINFONIKOA
# CONCIERTO SINFONICO

## I

Dans la mer (poema sinfonikoa, Paris 1904) .......... *José M.ª Usandizaga*
(Donostia 1887-1915)

Sinfonía N.º 2 (1980) .......................................... *Carmelo Bernaola*
(Otxandio 1929- )

## I I

Rapsodia Vasca .................................................. *Ramón Usandizaga*
(Donostia 1889-1964)

Gernica (Opera - III. Ekitaldia):

— 1. koadroa. Eskena mutua.
Podiok ekintza ilun bat prestatzen du.
Podio trama un tenebroso propósito.

— 2. koadroa.
Gernikak bere herriaren suntsiketa somatzen du.
Gernika presiente la destrucción de su pueblo.

— 3. koadroa.
Gernikako bonbardaketa.
Bombardeo de Gernika........................ *Francisco Escudero*
(Donostia 1913- )

Sopranoa: Inmaculada Martínez
Errenteriako Andra Mari Korala.
Zuzendaria: Jose Luis Ansorena.
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.
Zuzendaria: Jose Ramon Encinar.

# CARMELO BERNAOLA

1929an, Otxandion (Bizkaia) jaioa. Lehen ikasketak Medina de Pomar-en egin zituen, ondoren Burgosen sakondu zituelarik. Herri honetan "Orfeón Burgalés" delako taldeko abeslari, Injiniero Errejimentuko Bandako klarinete-jole eta Burgoseko Sinfonikako Irakasle izan zen. Bere irakasleen artean aipa ditzakegu Blanco, Mesanza, Forns, Massó, Calés eta Julio Gómez. 1957an "Samuel Ros" Sariko akzesita izan zen. 1958an, Madrilgo Kontserbategiko Lehen Saria eta Konposaketako Sari Ezohizkoa. 1959an "Roma Saria" irabazi eta Erroman Petrassi eta Pannirekin lan egingo du. 1962an Nazioko Musika Saria irabaziko du.

Zenbait urtez Madrilgo Kontserbategiko irakasle izan da, eta baita Granadako eta Santiago de Compostelako Nazioarteko Mintegietakoa ere. 1977an "Reina Sofía" dirulaguntza lortu zuen, Madrilgo Udalak emana. Epaimahaikide izan da maiz, eta bertako eta atzerriko erakunde askok lanak agindu dizkiote. Egun Madrilgo Udal Bandako irakasle da excedencia delako egoeran dagoelarik eta Gasteizko Kontserbategiko Zuzendari.

Lanetariko batzu: Espacios variados, Heterofonías, Impulsos, Sinfonía en Do, Músicas de Cámara, Relatividades, Polifonías, Superficie n.º 1, 2, 3, ea...

Nació en Ochandiano (Vizcaya) en 1929. Sus primeros estudios musicales los siguió en Medina de Pomar, ampliándolos después en Burgos, donde fue Cantor del Orfeón Burgalés, clarinetista de la Banda del Regimiento de Ingenieros y Profesor de la Sinfónica de Burgos. Entre sus profesores se encuentra Blanco, Mesanza, Forns, Massó, Calés y Julio Gómez. En 1957 fue Accésit del Premio "Samuel Ros". En 1958, Primer Premio y Premio Extraordinario de Composición en el Conservatorio de Madrid. En 1959 gana el Premio Roma y trabaja en Roma con Petrassi y Panni. Obtiene el Premio Nacional de Música en 1962.

Ha sido durante varios años Profesor del Conservatorio madrileño, así como de los Cursos Internacionales de Granada y Santiago de Compostela. En 1977 obtuvo la Beca "Reina Sofía" del Ayuntamiemto de Madrid. Ha formado parte de numerosos jurados y ha recibido encargos de instituciones nacionales y extranjeras. Actualmente, es Profesor excedente de la Banda Municipal de Madrid y Director del Conservatorio de Vitoria.

Algunas de sus obras: Espacios variados, Heterofonías, Impulsos; Sinfonía en Do, Músicas de Cámara, Relatividades, Polifonías, Superficie n.º 1, 2 y 3, etc. etc.

# FRANCISCO ESCUDERO

Donostian jaio zen 1913ko Abuztuaren 13an. Udal Akademian eta Donostiako Kontserbategian hasi zituen bere musika ikasketak, Beltran Pagolaren zuzendaritzapean. Konposaketa ikasketak Madrilen bukatu zituen, maisu Conrado del Campo izan zuelarik. Gipuzkoako Aldundiak eta San Fernandoko Arte Ederretako Akademia Errealaren diru laguntzez, Frantzia eta Alemanian konposaketa eta orkestra zuzendaritza sakondu eta hobetu zituen Paul Dukas, Le Flem eta W. Wolf maisuekin.

1945.ean Bilboko Santa Casa de Misericordia-ko musika maisu eta Elkarte koraleko zuzendari izendatu zuten.

1947.ean Donostian lekutu zen, Udal Kontserbategiko armonia eta konposaketa katedra lortuz. 1962an beronen zuzendari izendatu zuten 1981 arte, eta ordutik aurrera, armonia eta konposaketa katedrari soilik ekin zion.

Bere lan pedagogiko eskerga, musika sortze etengabearekin batean joan da. Euskal musikaren historiako lan zerrenda luze eta garrantzizkoen egile da, ezaugarri berezikoak eta mundu osoan onetsiak.

Erlijio musika; Salve regina, Hiru motete, Benedictus, Meza "Re"-n.

Kontzertu musika: Arko laukotea, Egunsentia, Preludio eta Fuga, Euskal Kontzertua, Violoncellorako kontzertua, Ileta, Itziar, Arantzazu, Zigor, Euskal Salmoa, e. a..

Zarautzen estreinatu ondorengo egunean, bere "Joan Bautista" oratorioa MUSIKASTE 88-an programatu zen.

50. Urteurrena dela eta berak egindako "Gernika" opera, 1987ko apirilak 25ean Bilboko Arriaga Antzokian estreinatu zen kontzertu bertsioan.

Nació en San sebastián el 13 de Agosto de 1913. Inició sus estudios musicales en la Academia Municipal y en el Conservatorio donostiarra, bajo la dirección de Beltrán Pagola. Los estudios de composición los terminó en Madrid, teniendo como maestro a Conrado del Campo. Con becas de la Diputación de Guipúzcoa y de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando perfeccionó la composición y la dirección orquestal en Frància y Alemania, con los maestros Paul Dukas, Le flem y W. Wolf.

En 1945 fue nombrado maestro de música de la Santa Casa de Misericordia y director de la Sociedad Coral, ambas de Bilbao.

En 1947 se instaló en San Sebastián, logrando este año la cátedra de armonía y composición del Conservatorio Municipal. En 1962 fue nombrado director del mismo hasta 1981, en que se limitó a su cátedra de armonía y composición.

Su gran tarea pedagógica ha estado acompañada de una profunda entrega a la composición musical. Es autor de una importante lista de. obras trascendentales en la historia de la música vasca, de características propias inconfundibles y aceptación universal.

Música religiosa: Salve Regina, Tres motetes, Benedictus, Misa en Re.

Música de concierto: Cuarteto de arco, Amanecer, Preludio y Fuga, Concierto vasco, Concierto para violoncello, Illeta, Iciar, Aranzazu, Zigor, Salmo vasco, etc...

En MUSIKASTE 88 se programó su oratorio "Joan Bautista", al día siguiente de su estreno en Zarauz.

Su ópera "Gernika", compuesta en conmemoración del 50 Aniversario del Bombardeo de Gernika, se estrenó en versión de cóncierto en el Teatro Arriaga de Bilbao el 25 de abril de 1987.

# GERNIKA

Opera sinbolikoa da, errealitatea eta fantasiaren arteko nahasketa, Euskal Herriaren historian beti oinarritua. Bere hirugarren Ekitaldiaren kontzertu bertsioak obraren mamitzat jotzen ditu, Ekitaldi horren hiru koadroak. Lehen koadroko bertsio eskenikoan, mimo batek misterio handiz milizietako burua den Podio-ren papera egiten du. Podio Erregearen babesean dagoen Gernika ederraz maitemindu da eta haserretu egiten da, honek jaramonik egiten ez dionean. Orduan Erregearen aurka egiten du eta bere ezpataz erasotzen du.

Orkestra urratsez urrats jarraitzen zaie mugimendu guzti hauei. Bigarren koadroan, Gernika agertzen da urduri eta itxuraldatua, tragedia aurresentitzen duelarik: "¡Veo a mi pueblo destruído! ¡Veo a mi pueblo destruído!"

Hirugarren koadroak, Gernikan 1937ko apirilaren 26an gertaturikoa kontatzen du errealismo gordinez. Arratsaldeko lau t'erdiak dira. Feria eguna da. Ezkilak jotzen ari dira arriskua iragartzeko. Jendeak ihes egiten du ikara handiz. Hegazkin bat, bi... asko. Lehen bonbak eztanda egiten du. Ondoren, besteek. Metrailadore boladak. Bonba suemaileak. Ikaragarrizko garraxiak. Sarraskia. Azkenean isiltasuna eta otoitza: Regina pacis... pacis... pacis...

Se trata de una ópera simbólica, mezcla de realidad y fantasía, fundada siempre en la historia del pueblo vasco.

La versión de concierto de su tercer acto presenta los tres cuadros que abarca, como parte sustancial de la obra.

En el primer cuadro la versión escénica desarrolla la intervención misteriosa de un mimo, que representa a Podio, jefe de las milicias. Interesado por la bella Gernika, protegida del Rey, monta en cólera, cuando ella no le corresponde y comprueba el amparo del monarca. Podio arremete contra él, atacándole con su espada.

La orquesta sigue paso a paso todos estos movimientos.

En el segundo cuadro aparece Gernika, nerviosa y transfigurada, presintiendo la tragedia: "¡Veo a mi pueblo destruído! ¡Veo a mi pueblo destruído!"

El cuadro tercero evoca con duro realismo el 26 de abril de 1937 en la Villa de Gernika. Son las cuatro y media de la tarde. Es un día de feria. Suenan las campanas en señal de alarma. Corren las gentes despavoridas. Un avión, dos, tres... muchos. Explosiona la primera bomba; después, otras. Ráfagas de ametralladoras. Bombas incendiarias. Gritos de horror y espanto. La masacre.

Al final, silencio y oración: Regina pacis... pacis... pacis...

# ERRENTERIAKO ANDRA MARI KORALA

Egun bere zuzendari den José Luis Ansorenak 1966. urtean sortu zuen.

Zenbait abesbatza-lehiaketa eta sariketatan parte hartu du, sari ugari jasoz hala nola Gasteizen, Tolosan, Torreviejan, Aarezzon (Italia) eta bestetan.

Gipuzkoa, Bizkaia, Santander, Bartzelona eta abarretako jaialdi eta musika-aste ugaritan abestu izan du. Zenbait kontzertu jira ere egin du. Galizia, Andaluzia, Canarias, Suiza, Belgika eta beste zenbait herritan zehar.

Behin eta berriro gonbidatzen dute gure herrian mota guztitako antzeztokitara.

Opera garaian antzeztokitan parte hartzeaz gain mota guztitako korumusika lantzen du.

Nabarmenena duen arloa Euskal Herriko musika lantzea da, hau dela eta Errenterian ospatzen den MUSIKASTE, Euskal Musikagile Astea, sortzen du. "Mostra" honetarako eta ERESBIL-ERESIAK urteroko ziklorako, EUSKAL ERESLARIEN BILDUMA euskal musikagile artxiboa sortu du, garai guztietako 1.000 eta gehiago euskal musikagileren 17.000 bat partituraz osatutako bilduma. Honek nortasun argi eta berezia ematen dio, era berean abesbatza prestatuena bezala aurkezten duelarik, bertako egileen egitamu monografikoak azaltzeko, bai hauen interpretazioan baita ere besteei gure herriko musikarien omenaldi-muntaietan laguntza eman eta aholkatzeko.

Euskal musikagileen obrez osatutako iraupen luzeko 4 diska grabatu ditu eta beste zenbait musika-elkarterekin beste diska batzuren grabaketan parte hartu.

Fue fundada en 1966 por su actual director, José Luis Ansorena.

Ha participado en distintos concursos y certámenes corales, como los de Vitoria, Tolosa, Torrevieja y Arezzo (Italia), con diversidad de premios.

Ha actuado en grandes Festivales y Semanas Musicales de Guipúzcoa, Vizcaya, Santander, Barcelona, etc... Ha realizado varias giras de conciertos por Galicia, Andalucía, Canarias, Suiza, Bélgica, Austria, etc...

Es constantemente invitada a actuar en toda clase de escenarios del país.

Cultiva todo género de música coral, incluída la participación escénica en temporadas de ópera. Su especialidad más característica es el cultivo de la música del país, que le llevó a crear el festival MUSIKASTE, Semana de Compositores Vascos, que se celebra en Rentería. Para esta "Mostra" y el ciclo anual ERESBIL-ERESIAK ha creado el Archivo de Compositores Vascos EUSKAL ERESLARIEN BILDUMA, recopilación de más de 17.000 partituras de más de mil compositores vascos de todos los tiempos. Esto le ha dado una personalidad específica clara, que lo presenta como la agrupación coral más dispuesta a programas monográficos de autores locales, tanto en su interpretación, como en el asesoramiento a los demás y colaboración en el montaje de homenajes a los músicos de nuestra tierra.

Ha grabado 4 discos de larga duración con obras de compositores vascos y ha participado en la grabación de otros de elaboración conjunta con otras entidades musicales.

# EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

1982. urtean Eusko Jaurlaritzak sortu zuen, Euskadi osoari kultur zerbitzu bat eskeintzeko nahian, kulturaren heziketa eta zabalkuntza bultzatuz; euskal konposatzaile, interprete eta abesbatzen oinarrizko eragingarri eta gure balio musikalak beste herrialde eta nazioetara zabaltzeko, enbaxada artistiko da, lan eta ardura epe labur baina sakon horretan 500 kontzertu baino gehiago eskeini dituenean.

Euskadin eskeintzen dituen ohizko kontzertuez gain, Espainiako zenbait Autonomia Elkarte ezagutu ditu orkestrak zenbait itzulitan: Aragoi, Kataluinia, Valencia, Errioxa, Madrid, Castilla-La Mancha, Asturias. Europako zenbait herrialdetan ere eskeini ditu itzuliak, erestaldi garrantzitsuenak Frantzia, Austria, Alemania eta Suiza izan direlarik.

Nazioarte mailan oso ezagunak diren artisten lankide izan da Orkestra, bai zuzendariak bai bakarlariak, instrumentulari edo abeslari. Era berean, egitarau sinfoniko-koraletan euskal abesbatzek hartu dute parte orkestrarekin, adibidez, Donostiako Orfeioa, Iruñeko Orfeoia, Errenteriako Andra Mari Abesbatza, Bilboko Elkarte Koralaren Abesbatza, Easo Abesbatza, Ondarreta Abesbatza,...

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak ohiz parte hartzen du Lekeitioko Itsas Soinua Jaialdian, Errenteriako Musikasten, Donostiako Musika Hamabostaldian eta Bilboko ABAO Opera Denboraldian.

Creada por el Gobierno Vasco en 1982 y con el deseo de ofrecer un servicio cultural a todo el País Vasco, principalmente contribuyendo a la educación y difusión cultural, servir de estímulo y plataforma a intérpretes, compositores y coros vascos, proyectar nuestros valores musicales a otros pueblos y naciones, es hoy embajada artística, tras sus más de 500 conciertos ofrecidos en este breve pero intenso período de trabajo y dedicación.

Además de sus habituales conciertos en Euskadi, durante sus años de vida ha recorrido mediante giras diversas Comunidades Autónomas del Estado Español, como Aragón, Cataluña, Valencia, Rioja, Madrid, Castilla-La Mancha, Asturias. También ha realizado giras por varios países de Europa, siendo sus principales actuaciones en Francia, Austria, Alemania y Suiza.

La Orquesta ha actuado con artistas de talla internacional, tanto en lo que se refiere a directores como a solistas, bien sean éstos instrumentistas o cantantes. Asimismo, en sus programas sinfónico-corales han participado agrupaciones corales vascas, como el Orfeón Donostiarra, Orfeón Pamplonés, Coral Andra Mari de Rentería, Coro de la Sociedad Coral de Bilbao, Coro Easo, Coral Ondarreta,...

Interviene regularmente en los Festivales de Itsas Soinua de Lekeitio, Musikaste de Rentería, Quincena Musical de San Sebastián y Temporada de Opera de la ABAO de Bilbao.

# JOSE RAMON ENCINAR

Madrilen jaio zen. Oso goiz hasi zituen bere ikasketa musikalak era pribatuan, eta ondoren Madrileko Kontserbatorioan eta Milan-eko Giuseppe Verdi Kontserbatorian eman zien jarraiera. Eragian handia izan dute bere hezkuntzan, Federico Sopeña bere lehen irakasleak eta Franco Donatoni konposizioko irakasleak.

1973an, KOAN taldeko zuzendaritza hartzen du, gaurko musikaren interpretazio eta zabaltze lan garrantzitsua egiten duelarik. Alpuerto eta Suvini Zerboni-k argitaratutako bere konposizio lanak jaialdi garrantzitsuenetan eta Europan gaur eguneko musikaz aritzen diren zentru handienetan jo izan dira.

1976tik 1982ra Franco Donatoni-ren laguntzaile izan da Siena-ko "Accademia Chigiana"n. Besteren artean, ondoko orkestra hauek zuzendu ditu: Espainiako Ganbarako Orkestra, Espainiako Nazionala, Madrileko Sinfonikoa (Arbós Orkestra), Bilboko Sinfonikoa, Bartzelona Hirikoa, Ljubljana-ko (Yugoslavia) Irratiko Orkestra, Yogoslavia-ko Nazionala, Cracovia-ko Irrati Poloniarreko Orkestra, Erromako RAI, Napoles-eko RAI, Erromako Santa Cecilia, Bari-ko Petruzzelli Antzokiko Orkestra, Karlsruhe-ko Operakoa, Lisboa-ko San Carlo Antzokikoa, Londres-eko Orkestra Sinfonikoa, Puerto Rico-ko Nazionala eta Mexico-ko Filarmonikoa.

1983an, Madrileko Operako Antzokian, Luis De Pablo-ren KIU obraren erabateko estrenoa egin zuen. 86-87ko denboraldiaren lehen emanaldietan zuzendu ditu Hindeminth eta Menotti-ren operak.

1982tik 1985era, Las Palmas-eko Orkestra Filarmonikoaren zuzendaria izan da. 1985ean, Madrileko Udazkeneko Jaialdian Bocherini-ren "La Clementina" opera zuzendu zuen. 1986an, Federico García Lorca-ren hitzez Juan José Castro-k egindako "La zapatera prodigiosa" estrenatu zuen Espainian. 1987-88ko denboraldian, Espainiako Kultur Ministraritzak agindu zion "Fígaro" opera estrenatu zuen Madrileko Olimpia Aretoan.

1988-89ko denboraldian, "Fígaro" opera Lisboa-ko Dona Maria II Antzoki Nazionalean izan da interpretatua eta Madrileko Zarzuela-ko Antzoki Nazionaleko egitaraua itxiko du.

1988an Espainiako Kultur Ministraritzak Montserrat Caballé-rekin batera, Musikaren Sari Nazionala ezarri zion.

Nace en Madrid. Comienza muy joven su formación musical de forma privada, continuando posteriormente en el Conservatorio de Madrid y en el Conservatorio Giuseppe Verdi de Milán. Han ejercido una fuerte influencia en su formación Federico Sopeña, como primer orientador y Franco Donatoni como profesor de composición.

En 1973 inicia la dirección del grupo KOAN, a la cabeza del cual ha realizado un importante trabajo de interpretación y difusión de la música contemporánea. Sus composiciones, editadas por Alpuerto y Suvini Zerboni, han sido ejecutadas en los principales festivales y en los más importantes centros europeos consagrados a la música actual.

De 1976 a 1982 ha sido auxiliar de Franco Donatoni en la Accademia Chigiana de Siena. Ha dirigido, entre otras, las siguientes orquestas: Orquesta de Cámara Española, Nacional de España, Sinfónica de Madrid (Orquesta Arbós), Sinfónica de Bilbao, Ciudad de Barcelona, Orquesta de la Radio de Ljubljana (Yugoslavia), Nacional Yugoslava, Orquesta de la Radio Polaca de Cracovia, RAI de Roma, RAI de Nápoles, Santa Cecilia de Roma, Orquesta de Teatro Petruzzelli de Bari, de la Opera de Karlsruhe, del Teatro San Carlo de Lisboa y Orquesta Sinfónica de Londres, Nacional de Puerto Rico, Filarmónica de México.

En 1983, en el Teatro de la Opera de Madrid, dirige el estreno absoluto de KIU de Luis de Pablo. Ha dirigido igualmente la primera sesión de temporada 86-87 con óperas de Hindemith y Menotti. Entre 1982-1985 ha sido director titular de la Orquesta Filarmónica de Las Palmas de Gran Canaria. En 1985, dentro del marco del Festival de Otoño de Madrid, dirigió la ópera "La Clementina" de Bocherini. En 1986 dirigió el estreno en España de la ópera de Juan José Castro "La zapatera prodigiosa" con texto de Federico García Lorca. Durante la temporada 1987-1988, Encinar ha dirigido en la Sala Olimpia de Madrid el estreno de su ópera "Fígaro", con libreto propio, obra encargo del Ministerio de Cultura Español. Durante la Temporada 1988-1989, "Fígaro" ha sido representada en el Teatro Nacional Dona Maria II de Lisboa, y cerrará el cartel del Teatro Nacional de la Zarzuela de Madrid.

En 1988 el Ministerio de Cultura Español le concedió el Premio Nacional de Música junto a Monserrat Caballé.



Maiatzak 20
larunbata
gaueko 10etan
**Kaputxinoen elizan**

Sábado
20 de Mayo
22 horas
**Iglesia de Capuchinos**

# KORAL EGUNA
# DIA CORAL

Dos fábulas de Samaniego:
— Un cojo y un picarón.
— El burro flautista ........ *Ramón Usandizaga* (Donostia 1889-1964)

San Permiñetan ........ *Ramón Usandizaga*

Sagardotegian ........ *Ramón Usandizaga*

Criptograma ........ *Antonio Lauzurika* (Gazteiz 1964- )

Quousque tandem ........ *Juanjo Mena* (Gazteiz 1965- )

Bizkaiko seme leialak ........ *Eduardo Gorosarri* (Eskoriaza 1889-1947)

Asisko lore eder ........ *Eduardo Gorosarri*

Dringilin dron ........ *Eduardo Gorosarri*

Liberi ta labero ........ *Eduardo Gorosarri*

Iruñeko San Fermín Koroa.
Zuzendaria: Fermín Iriarte.
Deustoarrak Koroa:
Zuzendaria: José Gimenez Muruaga.
Gazteizko Cluster Koroa:
Zuzendaria: Juanjo Mena.
Eskoriatzako Gorosarri Abesbatza:
Zuzendaria: Izabella Blezien.
Errenteriako Andra Mari Korala:
Zuzendaria: Jose Luis Ansorena.

# ANTONIO E. LAUZURIKA

Gasteizen jaio zen 1964ean. Piano eta armoniako ikasketak egin zituen Gasteizen eta ondoren, kontrapunto eta fugakoak Bilbon, Juan Cordero-rekin. Villafranca del Bierzo eta Granada-ko "Manuel de Falla" Konposizioko Nazioarteko Ikastaroetan hartu zuen parte ikasle bekadun gisa.

Egun, konposizioko ikasketak egiten ari da Bernaolarekin Gasteizeko "Jesus Guridi" Musika Eskolan.

Nació en Vitoria-Gazteiz en 1964. Realizó estudios de piano y armonía en Vitoria, y posteriormente de contrapunto y fuga en Bilbao con Juan Cordero. Ha participado en los Cursos Internacionales de Composición "Manuel de Falla" de Granada y en Villafranca del Bierzo, en calidad de alumno becado.

Actualmente estudia composición con C. A. Bernaola, en la Escuela de Música "Jesús Guridi" de Vitoria.

# JUANJO MENA OSTERIZ

Gasteizen jaio zen 1965ean. Bere ikasketa musikalak Gasteizeko "Jesus Guridi" Musika Eskolan egin zituen, bertan solfeo, klarinete eta pianoa ikasi zituelarik. Armoniako ikasketak Bernaola musikagilearekin egin zituen eta ondoren Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntzaz kontrapunto eta fuga ikasi zituen Madrilen eta Bilbon, D. Vega, M. Padilla eta J. Cordero-rekin.

Azpimarratzekoak dira klarinete arloan egiten ari den lana eta era berean, zuzendaritza arloan egin dituen ikasketak.

Gasteizeko "Jesus Guridi" Musika Eskolan klarineteko irakaslea da eta eskola horretan gaurko musika zabaltzeko sortu diren Eskolako Ikasleen Orkestra eta Cluster Kamara Korua bi erakunderen zuzendari.

Egun, konposizioko ikasketak egiten ari da Bernaolarekin.

Nació en Vitoria-Gazteiz en 1965. Comenzó sus estudios musicales recibiendo clases de solfeo, clarinete y piano en la Escuela de Música "Jesús Guridi" de Vitoria. Realizó estudios de armonía con el compositor C. A. Bernaola, y posteriormente fue becado por el Gobierno Vasco y Diputación Foral de Alava para desarrollar estudios musicales de contrapunto y fuga en Madrid y Bilbao, con D. Vega, M. Padilla y J. Cordero.

Destaca su labor como clarinetista, así como sus estudios en el campo de la dirección. Profesor de clarinete de la Escuela de Música "Jesús Guridi", es también director de dos formaciones del citado centro, la Orquesta de Alumnos de la Escuela y el coro Cluster Cámara para la divulgación de la música contemporánea. Actualmente realiza estudios de composición con C. A. Bernaola.

# EDUARDO GOROSARRI MAIZTEGI

Eskoriatzan (Gipuzkoan) jaio zen, 1889ko urriaren 13an. Solfeoko lehen ikasketak bere aitarekin, Juan de Dios-ekin egin zituen. Piano eta armoniakoak parrokiako organista eta Udaleko Idazkaria zen Benito Saez de Viteri-rekin. Arrasateko organistarekin, Bitoriano Balerdirekin eman zion jarraiera bere ikasketei.

14 urte zituelarik, Sopuertako txistularia eta organista izan zen, handik Balmasedara joaten zelarik Martin Rodriguez-ekin piano eta armonia ikasketak egiteko.

1906an Salamanca-ko Apezgaitegiko organista eta kantu gregorianoko irakaslea izan zen. Ondoren, Gasteizera etorri zen eta Apezgaitegiko Kapera Maisua eta Orfeoiko zuzendaria izan zen. Hiri honetan hobetu zituen bere ikasketak Jesus J. M.ª Virgala-rekin.

1917an Ondarroako organista izan zen eta ondoren Begoñako organista izateko lehiaketa irabazi zuen. Organuko ikasketak Jesus Guridirekin hobetu zituen eta pedagogia mailan lan handia egin zuen Begoñako Eskolan. Ondoren Bizkaiko Kontserbatorioko Musikaren Estetika eta Historiako Katedraduna izan zen.

Euskal Herriko Txistularien Elkarteko lehen Lehendakaria izan zen eta musika obra garrantzitsuak idatzi zituen berarentzat. 1935ean, Donostiako Orfeoiak antolaturiko konposizio lehiaketa irabazi zuen.

Espainiako guda zibila lehertu zenean, 1937ko maiatzaren 21ean, Inglaterrarantz untziratu zen etsaiengandik ihes zihoazen 4.000 haur euskaldunen arduradun gisa. Ondoren Belgikara abiatu zen eta han, Floor Peters, Meulemans eta Van Neffel-ekin ikasi zuen.

1940an, Bilbora itzuli zen eta bertan ez zitzaion organistaren postua errespetatu, eta bere jaioterrira itzuli zen. 1945ean Madrilera joan zen apaiz eta organista lanetan aritu zelarik. 1946an, ondoezik zebilela, Eskoriatzara itzuli zen, bertan 1947ko irailaren 17an hil egin zelarik.

30 erlijio obra inguru idatzi zuen: Misa "Cum jubilo"; Quid retribuam; Salve Regina, ea... 9 obrez osaturiko koaderno bat organuarentzat; euskal musika obrak koruentzat: Itxarkundia, Maritxu, Libiri ta labero... dozena bat obra txistuarentzat: Contrapas, Alborada, Suite, ea...

Nació el 13 de octubre de 1889 en Escoriaza (Guipúzcoa). Recibió las primeras lecciones de solfeo de su padre, Juan de Dios. Las de piano y armonía de Benito Sáez de Viteri, secretario municipal y organista de la parroquia. Continuó sus estudios con Victoriano Balerdi, organista de Mondragón.

A los 14 años fue organista y txistulari de Sopuerta (Vizcaya), desde donde acudía a Valmaseda, para estudiar con Martín Rodríguez piano y armonía.

En 1906 pasó al Seminario de Salamanca, donde fue organista y profesor de gregoriano. De aquí vino a Vitoria, en cuyo Seminario fue maestro de capilla y director del orfeón. Aquí amplió estudios con Jesús J. M.ª Vírgala.

En 1917 pasó á ser organista de Ondarroa y en el mismo año ganó por oposición la organistía de Begoña. Aquí se perfeccionó en órgano con Jesús Guridi e inició una gran tarea pedagógica en la Escuela de Begoña y más tarde en el Conservatorio Vizcaíno, donde llegó a ser catedrático de Estética e Historia de la Música.

Fue el primer Presidente de la Asociación de Txistularis del País Vasco, que se fundó en 1927 y para la que compuso importantes partituras. En 1935 ganó un premio de composición en el concurso organizado por el Orfeón Donostiarra.

Al estallar la guerra civil española, el 21 de mayo de 1937 se embarcó como preceptor de 4.000 niños vascos, que fueron expatriados, huyendo del enemigo, rumbo a Inglaterra. Después se trasladó a Bélgica, donde estudió con Floor Peters, Meulemans y Van Nuffel.

Regresó a Bilbao en 1940, donde no se le respetó la propiedad de la organistía, que aún conservaba. Se retiró a vivir en su pueblo natal. En 1945 se trasladó a Madrid, donde ejerció como sacerdote y organista. Pero sintiéndose muy delicado de salud, en 1946 regresó a Escoriaza, donde falleció el 12 de septiembre de 1947.

Escribió una treintena de obras religiosas: Misa "Cum jubilo", Quid retribuam, Salve Regina, etc...; un cuaderno de 9 piezas para órgano; obras vascas para coro: Itxarkundia, Maritxu, Libiri ta labero, etc...; una docena de obras para txistu: Contrapas, Alborada, Suite, etc...

# IRUÑEKO SAN FERMIN ABESBATZA.

1976an, Fermin Iriartek sortu zuen San Fermin Ikastolako Eskolania. Bere kideen berezko bilakaerarekin batera sortu da gaur egungo San Fermin Abesbatza, 14 eta 24 urte bitarteko 35 neskek osatzen dutelarik, Fermin Iriarteren zuzendaritzapean.

Obra zerrenda luzea dauka 15 hizkuntzatan eginiko 200 partitura baino gehiagoz osatua, era guztietako garaiak eta estiloak lantzen dituelarik eta bereziki, egungo musika eta euskal musika.

"Pueri cantores"eko kidea da eta Erroman, Bruselas-en, Paris-en eta Lucerna-n aritu da. Kontzertuak eman ditu Bartzelonan, eta Euskal Herriko zenbait herritan, hala nola Baionan, Iruñean, Bilbon, Gasteizen, Basaurin, Errenterian (MUSIKASTEn), Zarautzen, ea...

Era berean, Beriaingo eta Iruñeko lehiaketetan hartu du parte lehen sari batzuk irabazi dituelarik. 1985, 1986 eta 1987an Salamanca-n koru gazteetzat entolatzen den Polifoniako Nazio Topaketetan hartu zuen parte Nafarroa ordezkatzen zuelarik.

Diska batzuk grabatu ditu, eta hauen artean azpimarratzekoa da Pecs-eko koru hungariarrarekin eta Goslar-eko orkestra alemaniarrarekin grabatu zuena.

En 1976 Fermín Iriarte fundó la Escolanía de la Ikastola San Fermín. Con la evolución natural de sus componentes hace su aparición el actual Coro San Fermín, compuesto por 35 chicas de 15 a 24 años, dirigido por Fermín Iriarte.

Posee ya un amplio repertorio de más de 200 obras en 15 idiomas, que abarca toda clase de épocas y estilos, especialmente la música contemporánea y vasca. Es miembro de "Pueri cantores" y, como tal, ha acudido a Roma, Bruselas, París y Lucerna.

Ha actuado en Barcelona y en poblaciones del País Vasco, como Baiona, Pamplona, Bilbao, Vitoria, Basauri, Rentería (MUSIKASTE), Zarauz, etc...

También ha participado en los concursos de Beriain y Pamplona, habiendo alcanzado varios primeros premios. Ha representado a Navarra en 1985, 1986 y 1987 en el Encuentro Nacional de Polifonía para coros jóvenes, que se celebra en Salamanca.

Ha grabado varios discos, entre los que cabe destacar el realizado conjuntamente con el coro húngaro de Pecs y la orquesta alemana de Goslar.

# DEUSTOARRAK KOROA.

1955ean, dagoeneko desagertua den Deustuko San Pablo Orfeoiko lagun talde batek gizonezko koru bat sortu zuen. Pasionisten Elizan kantatzeagatik San Felicísimo izena hartu zuen. Zuzendari asko ezagutu zituen.

Herritik kanpo kantatzen hasi zenean 1965ean "Deustoarrak" izena hartu zuen. Kontzertu ikusgarriak eman zituen Madrileko "Feria del Campo"n 1965eko eta 1966ko maiatzean.

1965ean Zortzikoteen "Concurso Vasco-Navarro" delakoan hartu zuen parte, 1969an Olabeagako Abesbatzen Lehiaketan eta 1971n Tolosako Euskal Kantaren Lehiaketan, denetan zenbait sari jaso zuelarik. 1972tik aurrera, gaur egun bere zuzendaria den Jose Gimenez Muruagaren zuzendaritzapean kantatzen du 1972, 1973 eta 1977an Tolosako Lehiaketan parte hartzen duelarik zenbait sari irabaziz. Era berean 1977an sariren bat jaso zuen Bizkaiko Aurrezki Kutxak antolatutako Lehiaketan.

Hedapen handiko bi L.P. grabatu ditu.

Kontzertu ugari eman ditu Euskal Herrian zehar. Sestaoko Orfeoiarekin eta Biotz Alai Koruarekin aldi batean elkartu zenean gizonezko 130ahotsezko korua osaturik, kontzertu jira bat egin zuen, Ifarralderaino luzatuz eta aldi berean arrakasta handia lortuz.

# GASTEIZEKO CLUSTER KAMARA KORUA

En 1955 un grupo de amigos, procedentes del extinguido Orfeón San Pablo de Deusto, formaron un coro de voces graves, que por actuar en la iglesia de los Pasionistas adoptó el nombre del Coro San Felicísimo. Esta agrupación conoció a varios directores.

Al ampliar su campo de actuación, desde 1965 el coro varió de nombre, transformándose en el definitivo "Deustoarrak". Tuvo una brillante intervención en la Feria del Campo en Madrid en mayo de 1965 y 1966. Participó en 1965 en el Concurso Vasco-Navarro de Ochotes, en el Certamen de Masas Corales de Olabeaga de 1969, en el Certamen de la Canción Vasca de Tolosa en 1971 con diversidad de premios. Desde 1972 se hizo cargo del coro su actual director, José Giménez Muruaga, con quien volvió a participar en el Certamen de Tolosa en 1972, 1973 y 1977 con diversidad de premios y en 1977 en el Concurso de la Caja de Ahorros Viscaína, también alcanzando premio.

Tiene grabados dos L.P. de amplia difusión.

Sus actuaciones por el País Vasco han sido numerosas. Especial impacto produjo su temporal fusión con el Orfeón de Sestao y el Coro "Biotz Alai", presentándose como una formación de 130 voces graves, llevando a cabo un circuito de conciertos, que se estiró hasta Iparralde.

Egun bere zuzendaria den Juan Jose Mena-k sortu zuen 1986an. Bere helbururik nagusiena gaur egun egiten den musika korala ezagutaraztea da. Honekin batera bere sonoritatea hobetu nahian beste estetika koralak aztertzen ditu.

Duela gutxi sortu bada ere, kontzertu ugari eman izan ditu, hauen artean azpimarratzekoak direlarik Santa María la Real-eko Monastegian (Nájera-n), 1987an Tolosako Abesbatzen Lehiaketan, Tafallako Tubala Uxoa Aste Koralean emandakoak.

Duela gutxi, "Jesus Guridi" Musika Eskolako Konposizioko ikasleek Jorge Oteizari egin zioten omenaldian hartu dute parte. Halere, azpimarratzekoa da 1988an Tesalonika-n (Grezian) eman zuten kontzertua bertako Koru Tapaketan.

Fue fundado en 1986 por Juan José Mena, su actual director. Su objetivo básico es interpretar y dar a conocer la música coral contemporánea, sin descuidar el estudio de otras estéticas corales, que le ayuden a mejorar su sonoridad.

En su corta existencia ha tenido un largo historial de actuaciones, de las que merecen destacarse la celebrada en el Monasterio de Santa María la Real (Nájera), el Encuentro Coral 1987 (Tolosa) y la Semana Coral Tubala Uxoa (Tafalla). Recientemente ha tomado parte en el homenaje-concierto a Jorge Oteiza, organizado por los alumnos de Composición de la Escuela de Música "Jesús Guridi" de Vitoria. Sin embargo puede decirse que su actuación más destacada ha sido su participación en marzo de 1988 en el Encuentro Coral de Tesalónica (Grecia). Está vinculado a la Escuela de Música "Jesús Guridi", de Vitoria.

# ESKORIATZAKO GOROSARRI ABESBATZA.

1983an, musikazale talde batek sortu zuen Eskoriatzan. Hilabete batzutan zehar saio batzuk egin ondoren, urte bereko ekainaren 16an egin zuen bere aurkezpena bertako Kepa Deunaren Parrokiako Eleizan.

Beranduago, Gipuzkoako Koru Federakundeko kide egin zen eta une horretatik aurrera TOPAKETetan aritu da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Abesbatzen Jaialdietan kantatu du.

Ejea de los Caballeros, San Vicente de la Barquera eta Tolosako Lehiaketetan hartu du parte, zenbait sari irabaziz. 1986an, Rhin ibaiaren alderdietan egin zuen jira bat, Wessel, Pulhern eta Sindorf-en kantatuz. 1987an, Madrilen kantatu zuen Hector Villalobos-i egindako omenaldian. Urte berean, Erromako "Santa María la Mayor"en eman zuen kontzertu bat eta Aita Santuaren audientzian egon zen. Kontzertu ugari eman ditu Euskal Herrian zehar.

Izabella Blezien-ek zuzentzen du abesbatza 1988ko martxotik aurrera.

En 1983 un grupo de aficionados a la música promovió la fundación de esta agrupación coral en Eskoriatza. Tras unos meses de preparación, hizo su presentación el 16 de junio del mismo año en la Iglesia Parroquial de San Pedro de la Villa. Algo más tarde se inscribió en la Federación Guipuzcoana de Coros y desde entonces participó en los TOPAKETAK y en el Festival Coral de Guipúzcoa, organizado por la Diputación Foral.

Ha participado en los Concursos Corales de Ejea de los Caballeros, San Vicente de la Barquera y Tolosa, con diversidad de premios. En 1986 realizó una gira por la zona del Rhin, con intervenciones en Wessel, Pulhern y Sindorf. En 1987 participó en Madrid en el homenaje a Héctor Villalobos. En este mismo año actuó en Santa María la Mayor en Roma, donde asistió a la Audiencia Papal. Sus actuaciones en el País Vasco son muy frecuentes.

Desde marzo de 1988 dirige esta agrupación coral Izabella Blezien.